

**Bulletin Municipal - Herriko Aldizkaria**

- |   |  |
|---|--|
| 2 ..... Le mot du Maire   | 3 ..... Auzapezaren hitza                                    |
| 4 ..... Budget prévisionnel 2022                                  | 4 ..... 2022ko aurrekontua                                   |
| 8 ..... Txik Txak en mode été                                     | 9 ..... Udako Txika Txak                                     |
| 10 .... Nouvel adressage pour les Makear                          | 10 .... Helbideratze berria makearrendako                    |
| 11 .... Boîte à livres  | 11 .... Liburu ontzia  |
| 12 .... Informations diverses                                     | 13 .... Argibide zenbait                                     |
| 14 .... Hommage à Christian Noguez par<br>l'association GiLTzaera | 14 .... GiLTzaera elkartearen omenaldia<br>Christian Noguezi |
| 15 .... Communication associations                                | 15 .... Elkarteen komunikazioa                               |
| 16 .... Agenda  | 16 .... Agenda   |



## Le mot du Maire

Chers Makear,

C'est par un hommage à Christian Noguez que je souhaite ouvrir cet édito. Très investi dans notre village, il a toujours œuvré pour le développement de notre commune par sa participation en tant qu'élu durant 3 mandats, musicien à la batterie fanfare, son profond respect pour notre patrimoine, son implication et dévouement au sein du village. A ses filles, à sa compagne et sa famille, j'adresse mes pensées les plus émues.

Ras le bol, c'est à travers leurs bulletins de vote que les français mais aussi les makear ont exprimé leur grogne lors des dernières élections législatives. L'absence d'un cap politique, la baisse du pouvoir d'achat, la multiplication des règles et des lois, bref tout ce qui touche à la vie quotidienne de nos concitoyens sont la cause de cette expression dans les urnes pour celles et ceux qui se sont exprimés.

C'est dans ce marasme politique que nous devons dorénavant gérer nos communes, notre commune. Nous allons devoir faire preuve de sérénité et de réflexion pour pouvoir poursuivre nos investissements prévus. Notre budget est un budget prudent au vu des incertitudes sur des recettes à venir et une inflation des prix des matières et le coût de main d'oeuvre qui augmentent.

Nos actions 2022 :

- Voirie : environ 50 000 euros.
- Achat de 5 000 m<sup>2</sup> de terrain à la famille Ploix Housset : 190 000 euros (futur lotissement destiné aux jeunes du village).
- Assainissement : la conformité de notre station est caduque. La CAPB qui a la compétence pour réaliser les travaux de réhabilitation n'a toujours pas entrepris cette réalisation. Nous sommes en attente depuis 4 ans. A ce jour, suite à la décision préfectorale pour non-conformité de station, aucun permis de construction ne peut être délivré tant que ces travaux ne sont pas effectués et terminés. Cette procédure pénalisant fortement nos jeunes qui veulent construire et vivre au village.
- Fin des travaux de voirie à la zone artisanale Etxe Handia : 60 000 euros.
- Suite au contrôle des services de sécurité de la Sous Préfecture concernant l'église de Macaye, les galeries demandent à être sécurisées. Un cabinet d'étude ossature bois a été mandaté pour un coût de 5 000 euros en vue de réaliser les travaux de sécurisation.

Suite à l'expérimentation, l'année passée, d'un emploi de berger sur le massif du Baigura par l'association Baigura Mendi Elkartea, le poste a été renouvelé, Timoté Lelièvre remplit cette fonction. Ce poste est devenu indispensable pour une bonne cohabitation des acteurs fréquentant le massif.

L'été est là, propice aux rencontres et à de nombreuses manifestations et fêtes. Profitez-en bien.

Au nom des conseillers municipaux et de moi-même, je vous souhaite à tous de belles vacances et du repos bien mérité.

Le Maire,  
Alain DUBOIS

## Auzapezaren Hitzza

Makear agurgarriak,

Editorial hau hasi nahi nuke Christian Noguez omenduz. Gure herrian biziki engaiatua zen, beti ari izan da gure herriaren garapenaren alde hautetsi gisa, 3 agintaldiz; herriko klikean musikari ere zen eta gure ondarea errotik maite zuen, eta herrian inplikaturik zen. Bere alaberi, lagunari eta familiari ene dolumin bizenak.

Leporaino aseak! Bozka paperen bidez dute frantsesek, baita ere makearrek, haien kexua erakutsi joan den diputatu bozetan. Norabide politikorik ez ukaiteaz, erosahalmenaren apaltzeaz, arauen eta legeen emendioaz, hots, egun guzietako bizitza hunkitzen duenaz aseak, herritarrek beren kexua adierazi dute.

Geldirik dagoen politika horretan ditugu kudeatu behar orain gure herriak, gure herria.

Lasaitasuna erakutsi beharko dugu eta gogoetak egin pentsatuak genituen inbestimenduak aitzina eramateko. Gure aurrekontua aurrekontu zentzuduna da kontuan harturik ondoko irabaziak ez direla segurak eta ikusirik materien prezioaren inflazioa eta langileen kostuaren emendioa.

Gure ekintzak 2022rako:

- Bideak: 50 000 € nonbait han.
- 5 000 m<sup>2</sup>ko lursailaren erostea Ploix Housset familiari: 190 000 euro (herriko gazteendako eginen den lotizamendurako).
- Saneamendua: gure araztegia ez da gehiago arauen arabera. Euskal Elkargoak du berritzeko obren eskumena, baina ez du oraino obrarik egin. Badu 4 urte beha gaudela. Gaur egun, prefeturak araztegia ez dela arauen arabera erabakirik, ezin da gehiago eraikitze baimenik eman obra horiek ez direino eginak eta bukatuak. Prozedura horrek Makean eraiki eta bizi nahi duten gure gazteak gaztigatzen ditu.
- Bide obren bukaera Etxe Handia ofiziale eremuan: 60 000 euro.
- Suprefeturako segurtasun zerbitzuen kontrolaren ondorioz Makeako elizan, galeriak segurtasun arauen arabera ezarri behar dira. Segurtasun obrak egiteko xedez, zur egiturak ikertzen dituen bulego bati eman zaio mandatua, 5 000 €-kostatu du.

Iaz Baigura Mendi Elkarteak artzain bat enplegatu zuen Baiguran lan egiteko, eta aurten ere batto hartu dute: Timoté Lelièvre. Lanpostu hori beharrezkoa bilakatu da mendian ibiltzen diren eragile guziak ongi akomeatzeko.


Uda da, sasoi egokia jendea biltzeko, ekitaldiez eta bestez baliatzeko. Ongi balia.

Herriko kontseilarien izenean eta ene izenean, deneri bakantza onak desiratzen dizkizuet eta atsedan ongi merezia.

Auzapeza,  
Alain DUBOIS

# Budget prévisionnel 2022 - 2022ko Aurrekontua

## 1. FONCTIONNEMENT: Dépenses - Gastuak.



### 1- Charges à caractère général : 148 274 €

- Energie, Electricité, Eau, Carburant : 21 800 €
- Bâtiments, Voies et réseaux : 57 000 €
- Assurances, honoraires: 10 100 €
- Contrat de prestations de services : 10 000 €
- \* Fournitures d'entretien et de petit équipement : 9 800 €
- Frais divers (administratif, maintenance, communication, taxes) : 39 574 €

### 2- Dépenses de personnel et cotisations : 136 500 €

### 3- Autres charges de gestion courante : 139 850 €

- Indemnités, cotisations Maire et adjoints : 35 300 €
- Cotisation sécurité sociale : 20 000 €
- Contributions aux organismes de regroupement : 59 400€
- Subventions : 25 000 €
- Divers : 150 €

### 4- Intérêts des emprunts : 4 335 €


### 5- Subvention exceptionnelle (Lemalu, AFP URSUYA) : 21 005 €

### 6- Amortissements : 1 885 €

### 7- Virement à la section d'investissement : 152 927 €

## Budget prévisionnel 2022 - 2022ko Aurrekontua

### 2. FONCTIONNEMENT: Recettes - Irabaziak.



#### 1- Produits des services et du domaine : 30 715 €

- Mise à disposition personnel (CCAS, Lemalu) : 29 000 €
- Divers : 1 715 €

#### 2- Remboursement Fonds natal de compensation : 700 €

#### 3- Impôts et taxes : 346 950 €

- Contributions directes (Impôts locaux) : 100 000 €
- Attributions complémentaires : 155 257 €
- Fonds Nationaux de Garantie Individuelle des Ressources : 61 688 €
- Autres fiscalités reversées par la CAPB : 19 940 €
- Taxe sur l'électricité : 10 065 €

#### 4- Dotations, subventions et participations : 136 685 €

#### 5- Produits de gestion courante (participation La Poste, loyers appartements) : 39 155€

#### 6- Résultat reporté : 50 571 €

**Le budget prévisionnel de fonctionnement, pour l'année 2022, est équilibré à 604 776 Euros.**

**2022ko aurrekontu arrunta orekatua da 604 776 eurotan.**

## Budget prévisionnel 2022 - 2022ko Aurrekontua

### 3. Investissements

Dépenses	Recettes	
200 000 €		<p><b>Achat de terrain.</b> Pour 2022, le poste le plus important est l'achat de 5.000 m<sup>2</sup> de terrain à la famille Ploix-Housset pour le futur lotissement communal UTSU. Un budget annexe de 200 000 € a été créé pour cet investissement. Un emprunt est prévu pour faire face à cette dépense, il sera remboursé grâce à la vente des lots constructibles.</p>
104 113 €	8 321 €	<p><b>Voirie.</b> Le programme de voirie prévoit un montant de 104 113 € subventionné à hauteur de 8 321 €. Ce financement est un reliquat de l'année 2021, nous attendons la confirmation de la subvention 2022. Les travaux prévus sont les chemins de Ernaga, Urburua, Haranburua, Goroztaitza.</p>
12 625 €	4 500 €	<p><b>Adressage.</b> Suite au travail de toponymie consistant à donner des noms à toutes les voies et quartiers de Macaye, nous avons posé des panneaux dans le village et toutes les maisons ont désormais un numéro. Des panneaux vous seront distribués prochainement pour l'affichage de ce numéro. Le budget prévu pour ces dépenses est de 12 625 € financé par la CAPB à hauteur de 4 500 €.</p>
7 000 €		<p><b>Rénovation du presbytère.</b> Nous préparons les travaux de rénovation du presbytère et prévoyons un budget de 7 000 € pour les études s'y rapportant.</p>
8 563 €		<p><b>Le mur de soutènement</b> du cimetière va coûter 8 563 €.</p>
1 052 €	9 000 €	<p><b>Accessibilité.</b> Les travaux d'accessibilité aux bâtiments communaux touchent à leur fin. 1 052 € sont prévus en dépenses et 9 000 € de subvention en recettes (CAPB)</p>
66 437 €		<p><b>Le capital de la dette</b> (remboursement des emprunts) sera de 66 437 € cette année.</p>
	13 500 €	<p><b>Subvention DETR.</b> En recettes supplémentaires, nous allons enregistrer une rentrée de 13 500 €, subvention de l'État due pour les travaux réalisés au rez-de-chaussée de Etxe Handia.</p>
	21 412 €	<p><b>FCTVA.</b> Le Fonds de Compensation de la TVA engendre une recette de 21 412 € en 2022.</p>



## Budget prévisionnel 2022 - 2022ko Aurrekontua

### 3. Diru ezartzeak

Gastuak	Irabaziak	
200 000 €		<p><b>Lursailen erostea.</b> 2022an, postu handiena 5 000 m<sup>2</sup>ko lursailaren erostea izan da Ploix-Housset familiari, UTSU lotizamenduaren eraikitzeko. 200 000 €-ko aurrekontu gehigarria sortu da inbestimendu horren egiteko. Mailegu bat eginen da gastu horri buru egiteko, eta zati eraikigarrien salmentari esker ordainduko da.</p>
104 113 €	8 321 €	<p><b>Bide obrak.</b> Bide obren programa 104 113 €-koa izanen da, eta 8,321 €-ko laguntza ukanen dugu; 2021eko finantzamendu hondar bat da, 2022ko laguntzaren baieztapenaren beha gaude. Obrak Ernaga, Urburua, Haranburua eta Goroztaitza bideetan eginen dira.</p>
12 625 €	4 500 €	<p><b>Helbideratzea.</b> Makeako bide eta auzoalde guzietan izena emateko toponimia lanaren ondotik, plakak ezarri ditugu herrian eta orain etxe guzietan zenbakia badute. Laster plakak banatuko ditugu etxeetan zenbakia ezartzeko. Horren egiteko aurrekontua 12 625 €-koa da eta Euskal Elkargoak 4 500 € ordaintzen du.</p>
7 000 €		<p><b>Apezetxearen zaharberritzea.</b> Apezetxearen zaharberritzeko obrak eginen ditugu, eta horretarako ikerketak 7 000 € kostako du.</p>
8 563 €		<p><b>Hilerrietako sustengu-murruak</b> 8 563 € kostako du.</p>
1 052 €	9 000 €	<p><b>Helgarritasuna.</b> Herriko eraikinen helgarritasun obrak bururatzekotan dira; 1 052 €-ko gastuak izanen dira eta 9 000 €-ko laguntza irabazitan (Euskal Elkargoa)</p>
66 437 €		<p><b>Zorraren kapitala</b> (maileguen ordainketa) 66 437 €-koa izanen da aurtan.</p>
	13 500 €	<p><b>BEH laguntza.</b> Irabazi gehigarriak ukanen ditugu, hots, 13 500 €. Etxe Handiaren etxe behean egin obren kariatara Estatuak eman laguntza.</p>
	21 412 €	<p><b>BEZaren ordainsari funtsak</b> 21 412 €-ko irabazia sortu du 2022an.</p>

## Txik Txak en mode été

Le réseau de mobilité du Pays Basque passe en mode été avec des trajets adaptés à la vie estivale et plus d'amplitude horaire. Pour plus d'économie, d'écologie, de simplicité et de liberté, découvrez ou redécouvrez les moyens de transport, tarifs et abonnements, plan interactif des lignes ou préparez vos trajets en suivant le lien :

- <https://www.txiktxak.fr>

- <https://www.communaute-paysbasque.fr/a-la-une-2/actualites/actualite/txik-txak-passe-en-mode-ete>






## Udako Txika Txak

Ipar Euskal Herriko mugikortasun sarea udako ordutegira iragan da: udako bizitzari egokitu ditu ibilbideak eta tenoreak. Ekonomia, ekologia, sinpletasun eta libertate gehiagoren alde, (berriz) ezagutuz itzazu garraiobideak, prezioak eta abonamenduak, ibilbideen mapa interaktiboa, edo apailatu ezazu zure ibilbidea lotura honetan:

- <https://www.txiktxak.fr>
- <https://www.communaute-paysbasque.fr/a-la-une-2/actualites/actualite/txik-txak-passe-en-mode-ete>



## Nouvel adressage pour les makears *Helbideratze berria makearrendako*

Comme annoncé précédemment sur le bulletin municipal, la diffusion de la nouvelle base d'adresse intégrant les numéros et noms de logements ainsi que les noms de voies est en cours d'achèvement auprès des partenaires institutionnels et privés : La Poste, le Cadastre, les services d'incendie et de secours ainsi que les gestionnaires des réseaux et GPS .

Après réception et vérification des panneaux, un courrier personnalisé vous sera adressé fin août notifiant la nouvelle adresse.

Ce courrier listera les principaux organismes auprès desquels vous devrez effectuer cette modification. Vous trouverez également une explication pour la pose des panneaux à effectuer par vos soins. Enfin, 2 dates de permanence en fin septembre seront proposées afin de venir retirer les panneaux à la mairie et poser vos questions si vous avez besoin d'informations complémentaires. Pour les personnes qui ne seraient pas disponibles à ces dates, les panneaux pourront être retirés ultérieurement, toujours à la mairie.

Une fois cette étape franchie, la commune sera autonome pour la gestion de l'adressage et pourra compléter la base d'adresse si besoin (bâtiments agricoles, gîtes, nouvelles construction, ...).

Concernant l'éligibilité au Très Haut Débit (THD/fibre optique), le déploiement est toujours en cours.

Gorago aipatu bezala, etxeen izenak eta zenbakiak eta bideen izenak biltzen dituen helbide berriak bururatzen ari dira partaide instituzionalak eta pribatuak: Posta, kadastra, sute eta sokorri zerbitzuak, baita ere GPS sareen kudeatzaileak.



Plaka guziak errezibitu eta kontrolatu ondoan, gutun pertsonalizatua igorriko dizugu zure helbide berria jakinarazteko.

Gutun horretan ukanen duzu helbide berria jakinarazi beharko duzun erakundeen zerrenda. Plaka zuk ezarriko beharko duzu, eta gutunean esplikatuko dizugu nola egin.

Azkenik, irail bukaeran 2 egun permanentzia izanen dira plakaren xerka jiteko Herriko Etxera eta argibide gehiago behar izanez gero galderak pausatzeko parada ukanen duzu. Egun horietan libro ez diren herritarrak berantago jiten ahalko dira Herriko Etxera plakaren xerka.

Hori bukatu ondoan, Herriko Etxea autonomia izanen da helbideratzea kudeatzeko eta beharrez, helbideen zerrenda osatzeko (laborantzarako eraikinak, landetxeak, eraikuntza berriak...).

Biziki Banda Zabaleko sarearen (THD/zuntz optikoa) hedapena bidean da.



## Boîte à livres

Une boîte à livres va très prochainement être installée à Macaye !

Le principe d'une boîte à livres est de pouvoir échanger, donner ou prendre des livres, de façon libre.

Cet outil de partage encourage l'accès à la lecture pour tous et valorise le recyclage.

Vous trouverez la boîte à livres en accès libre au niveau du fronton de Macaye, sous l'auvent des toilettes publiques.

La commune avait la volonté de mettre en place ce concept, et après avoir demandé à l'entreprise Abilan de concevoir un tel mobilier urbain, ces derniers ont eu la générosité de nous offrir le fruit de leur travail.

Les derniers détails seront réalisés par les artistes en herbe du centre de loisirs LEMALU, qui pourront exprimer leur talent en décorant cette boîte.

N'hésitez donc pas à donner une seconde vie à vos livres en les déposant dans la boîte à livres ou découvrir de nouvelles lectures parmi les livres qui seront déposés !

## Liburu ontzia

Laster liburu ontzi bat plantan ezarriko da Makean!

Ontzi horren bidez liburuak truka, eman edo har daitezke, dohainik.

Partekatzeko tresna horrek irakurketa sustatzen du eta birziklatzea balioan ematen.

Liburu ontzia Makeako pilota plazan ezarriko da, komun publikoen aterpean.

Herriko Etxeak kontzeptu hori plantan ezartzeko xedea zuen, eta Abilan enpresari liburu ontzia egitea galdegin ondoan, hauek beren lanaren emaitza eskuzabaltasunez eskaini digute.

LEMALU aisialdi zentroko artistagaiek apainduko dute liburu ontzia.

Beraz, zure liburuei bigarren bizi bat eskaini diezazue liburu ontzian utziz, edo irakurgai berriak har itzazu han atzemanen dituzun liburuen artean!



## Informations diverses

### 1. Sécurité à l'église de Macaye.

Suite à un contrôle de la commission de sécurité du SDIS 64 (pompiers) courant janvier 2022, il a été constaté des défauts et des manquements de sécurité sur les galeries.

Cela entraîne une fermeture temporaire de celles-ci avant travaux et nouveau contrôle de l'édifice.

Mr Le Maire a pris la responsabilité d'ouvrir uniquement la première galerie après étaieage de celle-ci.

D'autre part, nous avons demandé des devis à des cabinets d'études pour des contre expertises.

Le coût de ces devis est de 5000€

Cela permettra de connaître avec plus de précision, les travaux à réaliser ainsi que leur coût.

En attendant, un arrêté municipal a été pris, interdisant l'accès aux deuxième et troisième galeries.



### 2. Diffusion de l'information.

Le site internet de la commune est mis à jour régulièrement et diffuse des informations susceptibles d'intéresser chacun d'entre nous.

Si vous souhaitez recevoir ces informations automatiquement par e-mail dès qu'elles sont publiées sur le site, il vous suffit de vous inscrire sur le site.

Pour cela suivez le lien suivant : <https://macaye.fr/macaye.fr/contact/#envoi-actualites> aussi accessible depuis le menu, option « contact » et laissez vous guider !



La commission communication a aussi décidé de créer un **groupe WhatsApp pour tous les makear**. Ce groupe est destiné à la diffusion d'informations urgentes ou importantes par la mairie.

Si vous êtes intéressés, nous vous remercions de communiquer votre nom et numéro de portable à la mairie, si possible par email : [mairie-macaye@orange.fr](mailto:mairie-macaye@orange.fr)

Le nombre de membres de ce groupe étant limité, nous prendrons un numéro de portable par foyer.



Nous vous encourageons à utiliser ces outils de communication que nous mettons en place et donc à vous inscrire.

### 3. Réorganisation du Conseil Municipal.

Dominique Claverie, très pris au niveau professionnel, a laissé sa place à Michel Simon qui s'occupe de tous les travaux sur la commune et qui gère aussi le personnel.

Dominique reste présent au niveau du conseil municipal et Michel est désormais le premier adjoint au Maire.

### 4. Conseils aux particuliers par des architectes.

Le CAUE 64 (Conseil d'Architecture, d'Urbanisme et de l'Environnement) propose un service de conseils gratuits aux particuliers.

Les architectes et paysagistes vous conseillent pour tout savoir sur :

- Les **DEMARCHES à entreprendre** pour mener à bien votre projet.
- Les **ATOUTS et les EXIGENCES** de votre terrain et de son environnement.
- La **CONCEPTION de votre habitat** que ce soit en neuf ou en rénovation.

Contact: CAUE, 4 place Reine Marguerite à PAU ou 2, Allées des Platanes à BAYONNE

Tél: 05 59 84 53 66 - E-mail: [contact@caue64.fr](mailto:contact@caue64.fr) - Web: [www.caue64.fr](http://www.caue64.fr)

# Argibide zenbait

## 1. Segurtasuna Makeako elizan.

2022ko urtarrilean SDIS 64-ko (suhiltzaileak) segurtasun batzordearen kontrolaren ondotik galerietan akatsak eta segurtasun hutsak agertu dira.

Ondorioz, galeriak aldi bateko hetsi dira obrak egin aitzin, eta eraikina berriz kontrolatuko da.

Jaun auzapezak lehen galeria soilik irekitzeko ardura bere gain hartu du, hau zurkaiztu ondoan.

Bestalde, ikerketa bulego batzuei aurrekontuak galdegin ditugu bigarren azterketa baten egiteko.

Aurrekontu horiek 5 000 € kostatu dute.

Horri esker, zehazkiago jakinen dugu zein obra egin beharko den eta zenbat kostako duten.

Artean, Herriko Etxearen erabaki bat hartu da bigarren eta hirugarren galerietara igaitea debekatzeko.



## 2. Berrien hedatzea.

Herriko Etxearen webgunea erregularri eguneratua da eta bakoitza interesa litzakeen argibideak hedatzen ditu.

Argibide horiek e-postaz automatikoki errezibitu nahi bazenitu webgunean argitaratuak diren ber, izena eman dezakezu webgunean.



Horretarako zoaz lotura honetara: <https://macaye.fr/macaye.fr/contact/#envoi-actualites>

Menuan ere egin dezakezu, "harremanak" zutabean, eta esplikazioen arabera egizu.



Komunikazio batzordeak **WhatsApp talde bat sortu du makear guzientzat**. Talde horretan Herriko Etxeak presazko berriak edo argibide inportanteak igortzen ditu.

Interesatua bazara, igor zure izena eta telefono zenbakia Herriko Etxera, ahalaz e-postaz: [mairie-macaye@orange.fr](mailto:mairie-macaye@orange.fr)

Talde horretako kide kopurua mugatua baita, zenbaki bakararra hartuko dugu etxe bakoitz.

Plantan ezartzen ditugun komunikazio tresna horiek erabil itzazu, izena eman!

## 3. Herriko Kontseiluaren berrantolaketa.

Dominique Claveriek badu zeregin franko lanean, eta Michel Simoni utzi dio lekua; hau herriko obra guziez arduratzen da eta langileak ere kudeatzen ditu.

Dominique Herriko Kontseiluan gelditzen da, baina orain Michel da auzapezaren lehen axuanta.

## 4. Arkitektoen aholkuak partikularrendako.

Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumen Kontseiluak proposatzen du aholkuak ematea dohainik partikularrei.

Arkitektoek eta paisaia antolatzaileek aholkuak ematen dituzte:

- Zure proiektua plantan ezartzeko **egin beharreko DESMARTXEI** buruz.
- Zure lursailaren eta haren ingurumenaren **ABANTAILEI eta OZTOPOEI** buruz.
- Zure **etxearen DISEINATZEKO**, izan dadin berritzeko edo eraikitzeko.

Harremana: CAUE, 4 place Reine Marguerite à PAU ou 2, Allées des Platanes à BAYONNE

Tél: 05 59 84 53 66 - E-mail: [contact@caue64.fr](mailto:contact@caue64.fr) - Web: [www.caue64.fr](http://www.caue64.fr)

## Hommage à Christian NOGUEZ par l'association GiLTzaera

Kiki,

Lorsque l'association GiLTzaera a été créée, c'était une évidence que tu devais en être le Président et qu'Harrieta devait en être le siège.

Depuis que tu es parti, beaucoup trop tôt, beaucoup trop vite, tu as laissé un grand vide. La question s'est alors posée : devons-nous poursuivre sans toi ?

Et pourtant, même si cela est extrêmement difficile, nous ne pouvons nous résigner, nous ne pouvons abandonner...

Parce que tu t'es battu pour que tout cela existe, Parce que tu nous as soutenus, appuyés, poussés, bousculés, donnés envie de nous battre pour toujours donner le meilleur de ce que nous avons, de ce que nous sommes,

Parce que tu as cru en ce projet, parfois plus que nous-mêmes quand nous étions dans le doute,

Parce que tu es quelqu'un de bien, de bon, d'exceptionnel, et que tu mérites que nous poursuivions notre route,

Parce que nous allons te regretter, que tu nous manques cruellement et que nous pleurons ton départ précipité.

« Il faut que j'y aille », comme tu disais toujours, pressé par tout ce que tu faisais et tout ce que tu donnais aux autres.

Nous devons poursuivre et nous continuerons, sans doute différemment, et tout ce que nous ferons désormais sera dédié à ta personne, à ta mémoire, en échange de tout ce que tu nous as donné.

Merci pour tout Kiki. Ez adiorik.

Kiki,

GiLTzaera elkarte sortu zenean, argi zen lehendakari izan behar zenuela, eta Harrieta haren egoitza.

Joan zarenetik, aise goizegi, aise lasterregi, huts handia utzi duzu. Eta galdera hor zen: zu gabe, segitu behar dugua?

Alta, izigarri zaila izanik ere, ezin dugu amore eman, ezin dugu abandonatu...

Borrokan ari izan bazara hori dena existitzeko, Sostengatu baigaituzu, pusatu, bultzatu, borrokatzeko gogoia eman, dugunaren, garenaren hoberena eskaintzeko,

Proiektu horretan sinetsi baituzu, gu baino gehiago batzuetan, gu dudan geundelarik.

Pertsona ona baitzinen, paregabea, eta gure bidea segi dezagun merezi duzulako,

Zure falta sendituko dugu, zure eskasa izigarria da, nigarrez gaude hain laster joan baitzara.

“Joan behar dut”, zenioen beti, egiten zenuena egiteko eta eman zenuena emateko beti presaka.

Segitu behar dugu, eta segituko dugu, hain segur desberdinki, eta hemendik aitzina eginen dugun guzia zure omenez eginen dugu, eman diguzunaren truke.

Milesker handi bat, Kiki. Ez adiorik.



**Kattin, Melen eta familia guziaren partez**



### Anniversaire 20 ans de Jostakin.

Pour fêter les 20 ans de Jostakin, plusieurs Makear se sont retrouvés pour donner une pièce de théâtre.

Sous la direction de Peio Berterretche, 14 acteurs participent à la mise en scène de "Antso Azkarra Edo Miramamolinen Esmeralda" écrit par Antton Luku en 1997.

L'histoire se situe au XIII<sup>ème</sup> siècle, le conflit entre les musulmans et les chrétiens est à son comble sur la péninsule ibérique. Le roi de Navarre Antso Azkarra participe au côté des chrétiens, et gagne la bataille la plus importante de Navas de Tolosa. Erigé en grand vainqueur, le théâtre illustre le retour du roi dans son pays.

Antton Luku s'est basé sur plusieurs faits historiques pour écrire la pièce. La première représentation a été donnée lors des fêtes de Macaye.

Plusieurs autres représentations sont prévues :

- 14 août à Garazi
- 11 septembre à Pampelune
- 30 septembre à Bayonne
- 8 octobre à Saint-Palais
- 15 octobre à Hasparren

La batterie fanfare Ganixtarrak organise la messe de la Sainte Cécile proposée par l'Union Basque, le 26 novembre 2022. Cette messe rassemblera différentes formations musicales du secteur proche avec repas et animation le soir.

L'association Eskuz Esku organise le 10 décembre un bal concert avec ADAR (Maidier Martineau et Arnaud Bibonne) à la salle Hodi Aldea à Mendionde avec buvette et talos.

### Jostakin elkartearen 20. urtemuga.

Jostakin elkartearen 20 urteak ospatzeko, makear zenbait bildu dira antzerki baten emateko.

Peio Berterretchek zuzendurik, 14 antzerkilari ari dira "Antso Azkarra Edo Miramamolinen Esmeralda" antzerkian, Antton Lukuk idatzia 1997an.

Istorioa XIII. mendean iragaten da, musulmanen eta girstinoen arteko gatazka gorenean zelarik iberiar penintsulan.

Antso Azkarra Nafarroako erregeak girstinoekin parte hartu zuen gerlan eta Navas de Tolosako gudua irabazi.

Irabazle handi bihurtu zen, eta antzerkian erakusten da erregea bere herrialdera itzultzen.

Antton Luku gertakari historikoetan oinarritu da antzezlanaren idazteko. Lehenbiziko emanaldia Makeako bestetan iragan da.

Beste emanaldi batzuk ere izanen dira:

- Agorrilaren 14an Garazin
- Irailaren 11n Iruñean
- Irailaren 30ean Baionan
- Urriaren 8an Donapaleun
- Urriaren 15ean Hazparnen

Ganixtarrak herriko klikak 2022ko azaroaren 26an Santa Zeziliaren eguneko meza antolatzen du Union Basque federakuntzak proposaturik. Meza horretan inguruko musika talde bat baino gehiago ariko da, apairua ere izanen da eta arratsean animazioa.

Eskuz Esku elkarteak abenduaren 10ean dantzaldia antolatzen du ADAR taldearekin (Maidier Martineau eta Arnaud Bibonne) Lekorneko Hodi Aldea gelan.

## Agenda

**EUSKAL GASNAREN BESTA**  
LE FROMAGE BASQUE EN FÊTE

AGORRILAK  
**26**  
AOÛT  
MAKEA - MACAYE  
2022

ANIMATIONS GRATUITES ET DÉGUSTATION  
ANIMAZIOAK DOHAINK ETA JASTAKETA

WWW.LEFROMAGEENFÊTE-MACAYE.FR  
@LEFROMAGEBASQUEENFÊTE

Makeako ostaturek menu bereziak proposatuko dizkizute. Hauetan, euskal gasna manera desberdinetan kozinatua izanen da. Ogibarnia ostaturia (erreserbatu gabe) / Bidegaray ostaturia: 05 59 93 30 60 (aitzinetik erreserbatuz).

Les restaurants de Macaye vous proposeront un menu à thème, déclinant dans leurs plats le fromage basque.

Restaurant Ogibarnia (sans réservation) / Restaurant Bidegaray (sur réservation): 05 59 93 30 60

### **Mairie - Herriko Etxea**

Tél. - Zenbakia: 05.59.93.32.46

Mail - Mail-a: mairie-macaye@orange.fr

Ouverture les lundi, mardi, vendredi et samedi de 9h à 12h30.  
Astelehen, asteart, ostiral eta larunbatetan idekia goizean:  
9:00 - 12:30

Permanence du Maire le lundi de 9h à 12h.  
Herriko etxearen permanentzia astelehenero: 9:00 - 12:00

### **Agence Postale - Posta**

Tél. - Zenbakia: 05.59.15.60.02

Ouverture les lundi, vendredi et samedi de 8h30 à 12h30 et le mardi de 14h à 18h.  
Astelehen ostiral eta larunbatetan idekia (8 :30 - 12 :30) eta asteartean (14 :00 - 18 :00).



- 10:00** - Etxaldeko gasna lehiaketa Ossau Iraty sormarkan / *Concours de fromage Ossau Iraty fermier*
- 10:30** - Etxalde baten bisita / *Visite d'exploitation*
- 11:00** - Pilota partida / *Partie de pelote*  
Bonetbelche-Larramendy / Iribarren-Oxarango
- 12:30 - 13:30** - Sukaldaritza eta gasnaren inguruko tailerra, gasnazaleendako  
*Animation culinaire et fromagère pour les amoureux du fromage*
- 13:30** - Haurren jokoak "buru hausteak" mendiari buruz  
*Jeux pour les enfants "les incollables de la montagne"*
- 14:00 - 16:00** - Ardi moxte desafioak - Iparra vs Hegoaldea  
*Défis de tonte de brebi - Nord vs Sud*  
Laurent Paris - Mikel Etxebarria
- 15:00** - Gasna egitea / *Fabrication de fromage*
- 18:30** - Artzainen Lasterketaren abiatzea / *Départ de la course des Bergers*
- 18:45** - Haurren lasterkaldia / *Départ course enfants*
- 19:00** - Zikiroa ogitartekoan / *Zikiro en sandwich*
- 20:30** - Artzain xakur txapelketa / *Concours de chiens de berger*
- 22:00** - Dantzaldia KIKI BORDATXO-rekin / *Bal avec KIKI BORDATXO*

#### - Samedi 26 août

Fête du Fromage

#### - Vendredi 2 septembre

Collecte encombrants

#### - Dimanche 2 octobre

Makea Oinez

#### - Dimanche 16 octobre

Kermesse

#### - Dimanche 23 octobre

Loto de l'école

#### - Samedi 26 novembre

Messe de la Ste Cécile

#### - Vendredi 2 décembre

Collecte encombrants

#### - Samedi 10 décembre

Bal concert à Mendionde

#### - Agorrilaren 26a, larunbata

Euskal gasnaren pesta

#### - Irailaren 2a, ostirala

Poxeluko pusken bilketa

#### - Urriaren 2a, igandea

Makea Oinez

#### - Urriaren 16a, igandea

Kermeza

#### - Urriaren 23a, igandea

Eskolako lotoa

#### - Azaroaren 26a, larunbata

Ste Cécile meza

#### - Abenduaren 2a, ostirala

Poxeluko pusken bilketa

#### - Abenduaren 10a, larunbata

Dantzaldia lekornen